

MAILEGU ZERBITZUA

ERABILTZAILAK eta AGIRIA

UNEDen matrikulatutako ikasle orok liburutegia erabili dezake, baita UNED Bizkaia-ko irakasle eta AZPek (administrazio eta zerbitzuetako pertsonala) ere. Mailegu Zerbitzua erabili nahi duenak ikasle agiria erakutsi beharko du.

EPEA eta MAILEGU KOPURUA

	MAILEGUAK	DOKUMENTU MOTA	MOTA BAKOITZEKO MAILEGUAK	MAILEGU EPEA	BERRITZEAK	ERRESERBAK
IKASLEA SENIOR	15	Oinarrizko bibliografia	3	Astebete	3 astebete max.	2
		Monografia	8	Hilabete	2 hilabete max.	
		Ikus entzunezkoa	4	Astebete	0	
GRADUONDOKO IKASLEA	25	Oinarrizko bibliografia	3	Astebete	3 astebete max.	2
		Monografia	25	Hilabete	2 hilabete max.	
		Ikus entzunezkoa	5	15 egun	0	
IKASLE OHIA, ETA ABAR	6	Oinarrizko bibliografia	0	--	--	2
		Monografia	6	Hilabete	2 hilabete max.	
		Ikus entzunezkoa	2	Astebete	0	
IRAKASLE-TUTOREAK	20	Oinarrizko bibliografia	3	Astebete	3 astebete max.	2
		Monografia	20	Hilabete	2 hilabete max.	
		Ikus entzunezkoa	5	15 egun	0	
PAS	20	Oinarrizko bibliografia	3	Astebete	3 astebete max.	2
		Monografia	20	Hilabete	2 hilabete max.	
		Ikus entzunezkoa	5	Astebete	0	

MAILEGUAK BERRITZEA

Mailegu bat berritzeko eskaera egin ahal izango da dokumentu baten mailegu epea luzatu nahi denean. Hurrengo baldintzak bete beharko dira:

- Beste erabiltzaile batek ez du alde aurretik dokumentuaren erreserba egin.
- Baimendutako berritzeen kopurua ez da gainditu
- Maileguaren epean egon behar da
- Erabiltzaileak ez du inolako zigorririk indarrean.

Berritzeko baldintzak erabiltzaile-motaren arabekoak izango dira (Ikaslea, graduondoko ikaslea, irakasle-tutorea, eta abar...).

Berritze-eskaera hau hasierako maileguaren epearen barruan egin beharko da, eta bere iraupena maileguaren epearena izango da. Eskaera hau liburutegian bertan, telefonoz edo Liburutegiko webgunearen bitartez egin daiteke. Webgunearen bidez egiten bada, Campuseko pasahitza erabili beharko dira.

ERRESERBAK

Gehenez dokumentuen bi erreserba batera egin ahalko dira, liburutegian bertan edo Liburutegiaren bilatzailea.

Erreserbak ezingo dira ondorengo egoeretan egin:

- Mailegutik kanpo dauden dokumentuak
- Eskatzen duen erabiltzaileak lana dagoeneko maileguan baldin badu
- UNED Bizkaia-ko Liburutegiaren funtsan ez dauden dokumentuak
- Argitaratu gabeko dokumentuak

Erreserbatutako materiala eskuragarri dagoenean erabiltzaileari posta elektronikoz jakinaraziko zaio. Honek, maileguan jasotzeko hiru egun izango ditu. Behin epe hori gaindituta, erreserba indargabetuko da, eta ezin izango da erreserba hori egin bost egun natural pasatu arte.

MAILEGU BEREZIAK

Opor denboraldian iraupen bereziko mailegu zerbitzua egongo da. Liburutegiak mailegu horietako baldintzen berri emango du bere momentuan.

MAILEGUTIK KANPO DAUDEN MATERIALAK

Erreferentziazko obrak (entziklopediak, hiztegiak, kodeak, etab.), aldizkariak edo aldizkako argitalpenak, eguneratu daitezkeen obrak edo orri solteak dituztenak, agortutako dokumentuak edo zail ordezkatu daitezkeenak, tesiak eta antzeko izaera duten bestelako dokumentuak.

MATERIALEN TRATAMENDUA eta ZAINTZA

Maileguan hartzen den material bibliografiko eta ikus-entzunezko oro arreta handiz zaindu beharko da; marka, ohar eta azpimarratzerik egin gabe, ezta liburutegiaren materiala hondatu edo kaltetu dezakeen bestelako ekintzarik ere egin.

ARAUEN EZ BETETZEA

Atzerapenak itzulketan: Liburu bat maileguan hartzen duten erabiltzaileek hauxe epe barruan itzultzeko ardura hartzen dute. Justifikaziorik gabeko atzerapenak mailegu eskubidearen esekidura suposatuko du eta egun natural bateko zigorra ezarriko zaio atzeratutako egun eta dokumentu bakoitzagatik.

Azterketa garaian dauden atzerapenak larriagoak izango dira, ohiko zigorra luzatuz.

Materialaren galerak edo kalteak: Mailegu zerbitzuaren erabiltzaile oro maileguan hartzen dituen obren arduraduna da. Materialaren galtzea, ez itzultzea, lapurtzea edota hondamen partziala edo osoa gertatuz gero, ale berri batengatik edo bere zenbatekotik ordezkatu beharko da obra, mailegu zerbitzuaren eskubidea berreskuratzeko.

LIBURUTEGIEN ARTEKO MAILEGU ZERBITZUA

UNED Bizkaia-ko funtsetan ez dauden dokumentuak eskuratzeko, UNED Bizkaia-ko liburutegiak Liburutegien Arteko Mailegu Zerbitzua eskaintzen die bere erabiltzaileei, UNEDeko Liburutegi Sarearekin bereziki egiten da, beste estatuko liburutegi unibertsitarioekin batera. Zerbitzu honen prozedura eta salneurriak jarraian zehazten dira.

NORK ERABILI DEZAKE ZERBITZUA?

Liburutegien arteko Mailegu Zerbitzua UNED Bizkaia-ko ikasle, doktorego, ikertzaile, irakasle-tutore eta AZPak erabili dezakete.

ZEIN eta ZENBAT DOKUMENTU ESKA DAITEZKE?

- ✓ Erabiltzaile bakoitzak hilean bost dokumentu eska ditzake.
- ✓ Gomendatutako obrak eta UNEDeko ikasketa ofizialen oinarrizko testuak mailegutik kanpo geratzen dira.
- ✓ Ezin dira aldizkako argitalpenen zenbaki osoak maileguan eskatu, bai, ordea, artikuluen batzuen eskaneatutako kopiak.
- ✓ Tesien kasuan, autorearen baimen esplizitua izan behar dute.

PROZEDURA

- Eskaera orriak erabiltzaileak bete behar ditu liburutegian bertan edo posta elektronikoen bidez.
- Eskatutako dokumentu bakoitzagatik eskaera orri bana beteko da.

MAILEGUAREN EPEA ETA BALDINTZAK

Bidalitako dokumentuaren mailegu epea eta kontsultatzeko baldintzak jatorrizko liburutegiak ezarriko ditu. UNEDeko liburutegiei eskatutako materialak, jasotzen denetik, gutxi gorabeherako 20 eguneko mailegu epea izango du.

SALNEURRIAK

- ✓ Liburuak: - UNEDeko liburutegiak: doakoa
- REBIUN-eko liburutegiak: 8€ dokumentu bakoitzeko
- ✓ Artikuluak edo kapituluak: - UNEDeko liburutegiak: doakoa
- REBIUN-eko liburutegiak: [Tarifak](#)

ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

Liburutegien arteko maileguaren liburuak itzultzean atzerapenik badago, zigorra bikoitza izango da, bi liburutegietan eragina izango baitu; dokumentuen kopurua bider atzerapeneko egunak bider bi, alegia.

Zigorra indarrean dagoen bitartean, erabiltzailea ezgaituta egongo da, hortaz ezin izango du inolako zerbitzurik erabili (maileguak, berritzeak, erretserbak, eta abar...)

Eskatutako materialak ez jasotzeak zerbitzu honen hiru hilabeteko etendura ekarriko du. Behin eta berriz hau egiteak liburutegien arteko mailegu zerbitzuaren behin-betiko etenaldia ekar lezake. Liburutegien arteko zerbitzuak tarifa baten ordainketa badu, eskatzaileak ordaindu beharko du, eskatutako materiala erabili ez badu ere, eskaria egitean hori onartu baitzuen.

INFORMAZIOA

Telefono bidez: 94 493 74 93

Posta elektronikoz: biblioteca@portugalete.uned.es

Web: www.unedbizkaia.es

INFORMAZIO BIBLIOGRAFIKOA ETA ERREFERENTZIAREN ZERBITZUA

Zerbitzu honen xedea erabiltzaileari arlo ezberdinetan laguntza ematea da:

- Dokumentuak bilatu eta topatzeko
- Dokumentuen iturri ezberdinetako (fisikoak edo elektronikoak) informaziorako sarbidea
- Informazioa kudeatu eta artatzeko.

Liburutegiaren erabilerari buruzko edozein galderari ere erantzuna emango zaio:

- Zerbitzuei buruzko informazioa
- Katalogoetan bilaketa
- Datu-baseak eta Internet
- ...

Liburutegi Zentralaren webgunean "Ayuda a la Investigación" atala kontsulta daiteke

DATU-BASEAK, ALDIZKARI ELEKTRONIKOAK ETA INTERNETEN KONTSULTA

UNED Bizkaia-ko Liburutegiak Interneteko kontsulta libre eta doakoa eskaintzen die bere erabiltzaileei, liburutegian bertan dauden ordenagailuen bitartez. Edozein gailu pertsonalarekin ere Ikastetxearen WiFi sarearen bidez zerbitzu hau eskuragarri dago.

Horretaz gain, UNEDeko liburutegiak, bere webgunean, eta Campus UNEDen sartu ostean, baliabide elektronikoen anizteterako sarbidea eskaintzen du:

- ✓ Aldizkari elektronikoak
- ✓ Datu-baseak
- ✓ On-line erreferentzia
- ✓ Errepositorio digitalak (e-Spacio)